

USANDIZAGA ETA RAVEL, IBAIA ZUBI

Bozgorailua:

(2:50) Berehala, Irunera doan trena 2. trenbidetik sartuko da.

OFF:

(3:10) Urtero, Irailean, mundu guztiko musikari gazte anitz Donibane Lohizunen elkartzen dira, Maurice Ravel Akademiak piano, biola, bioloin, biolontxelo, kantu eta Ganbera Musika gai hartuta antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko. (3:24)

Marta:

Noiz sortu zen Maurice Ravel akademia, eta zergatik Donibane Lohizunen ?

J.F.Heisser:

(4:29) Maurice Ravel Akademia 1969an sortu zuen, itzal handiko euskaldun batek, Donibane Lohizuneko alkate Pierre Larramendyk. Artistaren lagun mina eta musikazale porrokatua zen Larramendy. Ravelen musika eredu hartuta Jaialdi bat eta Akademia sortzea otu zitzaion. Maurice Ravel bera Donibane Lohizunen ez baina Ziburun jaioa zenez, 1969az geroztik, bi udalerrri hauek elkarrekin lan egin izan dute Maurice Ravelen izena daraman akademia kudeatzeko.(5:21)

OFF:

(6:57) Maurice Ravel 1875eko martxoaren 7an jaio da Ziburun, Lapurdin. Aita Suitzarra zuen, eta ama berriz euskalduna: Maria Delouart. Abizen hau "uharte" hitzetik dator. Musikari izango zenak hiru hilabete dituela, familiak Parisera joko du. Hala eta guztiz ere, amak euskara erakutsi, eta euskaraz hitzegingo dute beti bien artean. (7:27)

Alexander:

(7:28) Han atzean, holandar estiloko etxe hartan Ravel jaio zenean, bere izeba Coraciellek udalean sinatu zuen jaiotza-agiria; bataioa berriz Ziburuko eleizan bertan egin zioten. Idazten etzekienez, "X" (ixa) idatzi zuen. Gero, musikagilearen bizitzan zehar, bi emakume hauek, izebak eta amak garrantzi handia izan zuten. Jaio eta berehala, bere gurasoak Parisera joan ziren arren, haurtzaroa ama eta izebarekin pasa zuen, eta hauek, jakina, euskaraz egiten zioten.(8:34)

OFF:

(8:37) Euskalerriarekiko harremana etzen sekula eten; izan ere, haurtzarotik hil zen arte, Ravel Donibane Lohizunera itzultzen baitzen udaro oporretan.(8:47)

J.F.Heisser:

(8:53)Euskal erritmo tradizional bat bada...Ez dut nik oso ongi ahozkatzen... zortzikoa. Zortziko izeneko erritmo hori erabiltzen du. Erritmo irregularra da,

oinarri bakoitiko erritmoa. Alegia, musikan beti bikoitietan jokatzen da, bi denboratan, 4, 6 edota 12an. Beti, ordea, zati daitezken denboretan...eta zortzikoa 5ekoa denez, belarriak segituan antzematen duen osagarri erritmikoa erabiltzen du berak. Esate baterako, Ravelen musika lanik onenetako bat: Piano, biolin eta biolontxelorentzako "Hirukoa" izenekoan, sarreran, Euskalerriko doinu irregular hori hartzen du iturburu.(9:52)

OFF:

(10:26) 1932ko abuztuan Donostiak Ravel omendu du. Kontzertua eskaini zaio Gran Kursaal-en, eta musikagilea bera ere bertan da. (10:35)

Javier Bello Portu:

(10:46) "Le tombeau de Couperin" eskaini zen. Orkestarako bertsoian preludea, forlan, minueto eta rigodona daude. Euskal ñabardura gehien rigodon-ak du, eta Godin anaiei eskainia dago. Hemen Ravelek zuzendu zuen orkestra bakarra Bilbokoa izan zen, Sorozabal zuzendari zen garaian... hogeiko urteetan.(11:47)

Alexander:

(11:19) Ravelek jakinmin handia izan zuen beti Bidasoaz bestaldeko sorkuntza musikalari buruz. Aita Donostiren gutunen artean, Ravelek Coolsi 1920ko maitzaren 25ean idatzitako eskutitz hau topatu dugu: (11:47)

(11:48) "Cools maitea. Eskerrak zure gutuna jaso dudan, zure helbidearen bila bainenbilen. Izan ere, ene herrikide bat -gogoan izan euskaldunok bi aberri ditugula- Aita Donostia hain zuzen ere, bisitan etorri zait bere lanak erakutsi eta aholku eske. Oso musika monastikoa izango ote zen beldur nintzen, monasterioan bizi izan baita orain gutxirarte. Zorionez, musikarako sentiberatasun handia duela ikusi dut, lantzea baino etzaio falta." (12:21)

Alexander:

(12:23) Ravelek bere aberriarekin zuen sentimendua ederki asko azaltzen da idatzi honetan; beti ere gogoan izanik, euskalduna ama zuela.(12:41)

Marta

(13:12) Hara, Bidasoa

Uxo.

(13:13) Ah bai

Uxo:

(14:12) Barkatu, zein musikagilerena da jo duzuen azken abestia?

Zuzendaria:

(14:16)Gustatu zaizue, ezta?

Denak:

(14:17) Bai!

Zuzendaria:

(14:18) Ba bere izenburua Bidasoa da, eta Usandizaga musikagilearena da.

Uxo:

(14:22)Norena?

Zuzendaria:

(14:23) Jose Maria Usandizagarena. Bere asken konposaketa opera bat izan zen. Eta idatzi zuen hemendik gertu, Igantzin, Nafarroan.

Uxo:

(14:30)Oso ondo. Eskerrik asko. Agur

Marta:

(14:38) Igantzira, Iruñerantz, eskuinera.

Marife:

(14:42) ba noa, eh?

Zuzendaria:

Agur.

Marta:

(14:54) “Usandizaga musikaria etxe honetan bizi izan zen.”

Marta:

(14:54) “Usandizaga musikaria etxe honetan bizi izan zen.”

(16:02) Usandizaga musikaria ezaguna izan al zen bere garaian ?

Ansorena:

(16:05) Jose Maria Usandizaga txikitatik izan zen ezagun. Izan ere, haurra zenetik oso aurreratua baitzen. Besteen piezak interpretatzen zituen, eta baita bereak ere.

Jose Mari Usandizaga Parisera bidali zuten, ikasi eta konposatzaile handi bihurtzeko. Bertan zela, estraineko musikalanak bidaltzen hasi zen. 1904erako konposatzen hasia zen, musikagile handia zetorren seinale. Mendi-Mendiyan egiteko eskatu eta 1910ean estrinatu zenean lortu zuen fama eta izena. Jose Maria Usandizaga Jainko bihurtu zen euskal musikazaleentzat.

Jose Maria Usandizagaren hiletan herri guztia bildu zen, garai hartan zenbateraino estimatzen zuten adierazgarri. Gainera, handik gutxira, herriak oroitarri bat ipini zuen bere jaiotetxean, Garibai kalean, kale bat eskaini zitzaion Gros auzoan, Gipuzkoa Plazako lorategian monumentua eskaini zitzaion... horrek guztiak ederki erakustendu, zinez oso ezaguna eta maitatua zela Donostian.

OFF:

(17:29) 1887ko martxoaren 31an jaio da Jose Maria Usandizaga Donostiako Garibay kalean, goi erdi-mailako familia batean. Aita, Carlos Usandizaga Uruguayko kotsula da Donostian, eta ama berriz, Ana Soraluze, oso emakume pianozalea da. Musikagilea oso haur gaixobera izan zen. Txikitan

aldaka apurtu zuen tximiniarako gordeta zeukaten enbor batekin. Honen ondorioz hankamotz geratu eta errenka ibiliko da; zapatan altxagarria eraman beharko du. Istripu hartatik sendatzen ari dela, izebak jostailuzko piano-txiki bat oparitu dio. Aurki eskatuko du haurrak benetako pianoa...(18:17)

(18:27) Usandizaga haur harrigarria da, pianojole paregabea oso txikitatik. 1894an German Cendoyarekin solfeoa ikasten hasi da. Aurrerago, Beltran Pagola pianista handiak armonia erakutsiko dio eta bide batez heziketa klasikoa eskaini: "Nahi duzuen pentsa ezazue, lan egin ordea, metodo klasikoaz" esan ohi zuen.(18:54)

(19:06) Usandizagak pianoa jotzen sekulako trebezia erakusten duela-eta, aitik Mont de Marsan-era eramango du semea, bertan erretiratuta bizi den Francis Planté handiak entzun dezan. Bere iritzia erabakigarria izango da haurra musika ikasketetan bideratzerakoan. Plantéren iritzia argi askoa da: "Adiskide, artista handi bat daukazu hemen" esango dio aitari. Platék berak zabalduko dizkio Pariseko Schola Cantorum-eko ateak.(19:39)

(19:47) Ordurako, Usandizaga bere txokoa egiten hasia da Donostiako musika-giroan. 13 urte besterik ez du, 1900. urteko martxoaren 18an, Bellas Artes antzokian lehen kontzertua eskaini duenean. Prentsak goratu egin du. Usandizagak txikitatik jaso du bere herriaren mirespena.

(20:08) Parisera abiatu aurretik Casinoan agur-kontzertua eskaini du, bere musikalan propioa eta guzti. "Escenas de caza". Aurrez idatziak zituen organorako lan batzuk, Suite bat La-n, Kuarteto bat, orfeoarentzat euskal Rapsodia bat, etabar...(20:25)

Javier Bello Portu: (20:27)Eta gero elizako kontuak. Organoa !! Usandizagaren organoa... Noizbait hiruzpalau disko egin beharko lirateke. Esate baterako, entramado-eran egituraturako piezak, bost edo sei direla uste dut: sarrera, graduatua, ofertorioa, igoera eta amaiera. Horretan bada bai ikaragarria !!(20:56)

OFF:

(22:12) 1901ean Usandizaga Parisera heldu da. 14 urte ditu eta Schola Cantorumeko ostatuan geratuko da gainerako ikasleekin batera. Bertako otorduak eskasak izan, eta gelak zer esanik ez; ondorioz osasun-ahula gaiztotu egin zaio. Beti hurbil izan duen tuberkulosia areagotu egingo zaio han egondako boladan. Pariseko aurreneko urtean lau ahots mistorentzat eliz kantaldi bat konposatu du. 1903-4.ikasturtean Guridi ere Parisera etorri da ikastera. Adiskide min egin eta elkarri gutun ugari bidaltzen hasi dira; idatzizko harreman hau urteetan gordeko dute.(22:56)

(23:10) Pariseko Schola Cantorum, heziketa klasikoa eskaintzen duen "erlijio musika eta liturgia-kanturako Eskola da". Cesar Frank konposatzailearen irakaspenak hartzen dira eredu bertan, Scholako zuzendari Vincent D'Indyren gainbegiradapean. D'indy honek, oso klasista eta garbizalea denez, eraso eta kritika ugari jaso ohi ditu Debussyren jarraitzaileen aldetik... musika berritzailea gogoko dutenen aldetik, alegia.(23:38)

(23:50) 1905ean beste ezbehar bat gertatuko zaio musikariari, oraingo honetan piano-lezio bat jasotzen ari dela. Ikaragarrizko mina omen du, eta osagile-espezialista batek eskua moztea aholkatu dio.(24:05)

Jose Antonio Usandizaga

(24:14) Tuberkulosiak eragindako artritisa jota zegoen. Gaitz honek eskua hondatzen du batzuetan, eta bere kasuan, eskuko hatz bat harrapatu zion; ez dakit zehazki zein hatz zen. Seguruenik, mina esku guztira hedatuko zitzaion. Garaiko medikurik onenetan izan zen, besteak beste, kirurgian maisu zen Freixet doktoarenean ere izan zen...eta honek oso iragarpen beltza eman zuen: gaitzak ez omen zuen sendabiderik eskua moztu ezean. Jakina, familia jota geratu zen. Aitak, berehalaxe Donostiara ekarri zuen, hemengo medikuei euren iritzia eskatzeko asmoz, eta zorionez, artritisa apaltzen hasi zen ia-ia desagertu arte. Pianoa jotzeko gai izan zen aurrerantzean, ez kontzertista-gisa, ordea.(25:14)

OFF:

(25:17) Eskua gogortuta geratu zaionez, interpretazio birtuosoak alde batera utzi beharko ditu. Osatu eta Parisera itzuli da. Ezintasun hark behartuta konposaketan murgildu eta nabarmenduko da.(25:30)

Jose Antonio Usandizaga:

(25:47)Hasiera batean Wagnerren mireslea zen. Bere koaderno bat badut nik, Schola Cantorum-en garaikoa...bertan, bere garaiko autoreen izenak idazten zituen, eta berak, aurrealdean Wagnerren argazkia ipini zuen. Aurrerago, Pucciniren eragina ere handia izan zen oso. Parisen Pucciniren operekin gozatzeko parada izan zuen, eta haiek betiko hunkitu zuten. Errusiar baletak ikusteko aukera ere izan zuen, eta harrezkero errusiar musikak beti erakarri izan zuen.(26:19)

OFF:

(26:26) 1906. urterako, nahikoa ikasi duelakoan, maisuek ikasketa amaierako diploma aurrez eman diote. Usandizaga Donostiara itzuli da.(26:36)

(26:52) 20 urte ditu Paristik itzuli denean; musika du bere bizitzaren ardatz nagusi, batipat konposizioa.

(27:04)Hurrengo urteetan, bere musika lanek makinabat sari jasoko dute, aurkezten den lehiaketa guztietan.(27:09)

OFF:

(27:16) Orduantxe eskatu dio Bilboko Elkarte Koralak Mendi-Mendiyan, gai euskalduneko opera. Libretoa Jose Powerrena da, eta euskararako itzulpena Jose Artolarena. Eskari hark goitik behera aldatuko du Usandizagaren bizitza: eszenarako aurreneko aldiz konposatuko du, eta ingurune berri hark erabat harrapatu ; handik aurrera bere sormenik gehiena hartara bideratuko du. 1909ko udazkena lan hura borobiltzen eman du; estrinaldia Bilboko Campos Eliseos antzokian izango da 1910eko maiatzaren 21ean.(27:52)

(30:16) Musikariak arrakasta eskuratu du sarritan bezalaxe; Gaceta del Norteko Adrian Loyartek hauxe idatzi zuen: "Gaztea da, haurtxo bat; eta osasuna lagun, Usandizaga, aurrena, bat eta bakarra izango da konposatzaile garaikideen artean". Buenos Aireseko prentsan ere izan du oihartzuna: "espaniako musikagilerik jantziena, trebatuena, eta euskaldunen drama lirikoa taularatuko duena" (30:45)

(31:16) Bilbon halako arrakasta izan eta gero, Usandizagari harrera beroa egingo zaio Donostian. Donostiako Orfeoiaren zuzendari zen Secundino Esnaolak bultzatuta, Mendi Mendiyan Donostian taularatzeko erabakia hartu da. Konposatzailearen eta abesbatza honen arteko harreman estu eta oparoa halaxe hasi da. (31:35)

(31:40) Artean Orfeoia gizonezkoek baino etzuten osatzen; haur eta helduak, tartean Pablo Sorobal. Emakumezko ahotsak, hain zuzen ere Usandizagaren musikalana estrinatzekeo batuko dira taldera. Mendi-Mendiyan-eko esperientziari esker egin zela musikari aitortu zuen Sorozabalek aurrerago; entseietan Usandizaga bera egon ohi da. (32:03)

(32:05) Donostiako estrinaldia Circo Antzokian izan zen 1911ko Apirilaren 15ean, eta Bilbon lortutako arrakasta errepikatuko da. (32:13)

Emilio Sagi:

(32:21) Usandizagaren musikalari bat Donostian eta Bilbon antolatzeko aukera bikaina izan nuen. Mendi-Mendiyan zen obra, eta benetan esperientzia ederra izan zen. Nire iritzian, maisuaren musika paregabea da, kalitate handikoa. Herri honetako musikaririk azpimarragarriena irizten diot, konposatzaile garaikideen artean beñipein. Zinez hunkitu ninduen, Mendi-Mendiyan operako paisaiaren poesiak, euskal-arimaren poesia horrek... musika eta letra zeinen dotore uztartzen diren... Euskaraz egin genuen, eta egia esan, kanturako oso hizkuntza egokia iruditu zitzaidan, oso hizkuntza musikala eta argumentuan oso ongi txertatzen zena; Mendi-Mendiyanek adierazten duen nekazari giroko trajedia dotore azaltzen zuena. Harro nago lan hartaz. Ikuskizun bikaina izan zen, eta pozik egingo nuke berriz ere Usandizaga Maisuaren lanen bat, bere musika eta giroa hurbil izatearren. (33:21)

OFF:

(33:24) Mendi-Mendiyanen arrakastaren ondoren, musikagileak obra gehiago konposatu du: Umezurtza, Hasshan eta Melilhah, edota Donostiako sutearen mendeurrena ospatzeko "1813ko Abuztuaren 31ko Eresia"... Hala eta guztiz ere, antzerkiak zeharo itsututa dauka. Antzerki giroa, entsegu eta antzezpenak biziki maite ditu. Antzerki lanak behin eta berriz irakurtzen ditu, eta taula gaineko arrakasta du helburu. (33:52)

(33:54) Halako batean titiritero batzuen drama kontatzen duen testu bat esku artera etorriko zaio; Saltimbanquis zuen izena, eta Gregorio Martinez Sierrak sinatua, nahiz eta haren lanik gehienak bezalaxe, bere emazteak idatzitakoa izan. Emaztea Maria Lejarraga da, gehienek Maria Martinez Sierra deitu arren. Martinez Sierratarrek Usandizaga ezagutu bezain pronto, Saltimbanquis eredu

hartuta zarzuela bat egitea pentsatu dute. Elkar ezagutu dutenean konposatzaileak 24 urte baino ez ditu, eta itxuraz are gutxiago. Handik aurrera, besotakotzat hartuko du Maria Lejarragak Usandizaga bizkor eta gaixobera. Urteak pasa ahala, musikariaren nondik-norakoen informazio-iturririk osatuena bera izango da, artikulu, hitzaurre eta bestelako idazlanei esker.(34:39)

(34:49) Usandizaga Urnietako Agerre baserrira joan da, gerora Enarak izenburua izango duen musikalana konposatzera. Jan eske mokoka egiten omen dion Potrollo oilarra lagun egin du, eta baita Enarak musikalanekeo protagonistaren izena ipini dion zakurra, Puck, ere. Usandizagak zakur hau Donostiara eraman, eta alboan izango du azkenerarte.(35:10)

(35:18) Korrika eta presaka landu du Usandizagak Enarak obrarako testua. Gregorio Martinez Sierrak ziur uste du lana estrinatzea lortuko duela, eta honek zirikatu egiten du musikaria. Antzerkirako konposatzea du amets. Maria Lejarragak gutuna igorriko dio: presaka ibiltzeko. Senarrak topatu omen du estreinaldirako konpainia: Emilio Sagi-Barba baritonoarena. Usandizaga Madrilera joango da Urte Berri egunean. Osasuna dela eta, ama beldur da, eta Maria Lejarragari ondo zaintzeko esan dio: “Ez dadila gauzez irten, ez dezala edan...” errepikatu dio amandre berriari. Martinez Sierraterek aurkezpen-gutun bat eman diote Sagi-Barbarentzat, eta hauxe dio bertan: “Hemen doakizu espainiako Pucini”.(36:02)

Emilio Sagi:

(36:03) Maisua gure aitonaren etxean agertu zen, partitura besapean zekarrela; zati bat jo, eta egia esan aitona eta andrea hunkituta geratu ziren./ Maisuak behin eta berriz galdetzen zien ea gustatu ote zitzairen, ez baitzuten ezertxo ere esaten; eta halako batean aitonak esan zion:

“Biziki hunkitu gaituzu”. Eta orduan, jakina, segituan egin nahi zuten. Entseiurak berehala hasi ziren, eta egia esan, gure aitona eta Luisa Vela andrearen konpainiak sekulako arrakasta izan zuen Enarak obrarekin...musikalan gogoangarria izan zen gure aitonarentzat, eta baita familia osoarentzat ere.(36:40)

OFF:

(36:41) Antzezlana Price Zirkuan estreinatuko da; Maria Lejarragaren iritziz, ez da hura antzerkirako aretorik aproposena.(36:49)

Maria Lejarraga:

(36:50) “Areto higuinagarria zen, zaharra, entzuteko batere egokia ez... Etzuen taxuzko berogailurik ere: bi galdara erraldoi zeuden, eta airea berotu baino, sekulako kiratsa botatzen zuten...gainera, bi hodi beltz-zarpail haiek eserlekuen gaineraino zintzilik zeuden...” (36:09)

OFF:

(37:14) Sagi Barba eta emakumezko protagonistarena egin zuen bere emazte Luisa Vela, oso ezagunak dira Madrilen, eta ikusleek oso maite dituzte. Usandizaga estreinaldirako irrikitzen dago, eta hala, otsailaren bosterako egin da zita. Egun berean arratsalde egindako entseia negargarria izango da. Gau hartan estrinatu ala ez, zalantza sortuko da. Taula gainean zaildua dela-eta

hauxe esango du Sagi-Barbak: "Gaur gauean estrinatu, eta sekulako arrakasta izango da !!"(37:48)

(37:50) Txirrinak jo, eta ikusleak eserlekuetan kokatzen hasi dira.

(38:47) Usandizaga urduri dago, geroago azalduko duenez.

J.Mª Usandizaga:

(38:52)Edozein soinu, kexu iruditzen zitzaidan. Makilaren baten hotsa entzunez gero, jabeen protesta zela uste nuen; gainera, berez hain pertsona urduria naizenez, ba...Gero, ez dakit zer gertatu zen. Behin, bitan, hamar, hogeit bider irtengo nintzen...Ezin kontatu ere zenbat bider deitu zidaten taula gainetik.(39:11)

OFF:

(39:12) Halaxe da; Usandizagak makina bat aldiz irten behar izan du, antzerkia amaitzerako. Dena ezinhobeto irten zen, antzerki giroko esaera zaharrak dioena zintzo beteaz:"Entsegu txarra, estreinaldi aparta" (39:25)

Javier Bello Portu:

(39:59) Badaude, esate baterako oso gauza bitxiak eta zehatzak; adibidez, Puck-en erromantza txikia aurkeztu osteko pantomima...hau, orkestradun bertsoan biolontxeloak egiten du. Eta behin pantomima hori hasitakoan, RE bemolerako modulazioa, mi, fa, fa, fa, mi, la...(40:42)

OFF:

(41:45) Enarak musikalanak arrakasta itzela jaso du kritika eta ikusleen aldetik; eta Usandizagak pozik eta ia sinetsi ezinean bereganatuko du arrakasta hura, Maria Lejarragak azaltzen digunez.(41:56)

Maria Lejarraga:

(42:00) Haur jeinua, pozik baino gehiago ia txoratzen zegoen; zoriona zuzen zuzen dastatzeko aukera zuen: Antzerkian arrakasta erdiestea, batipat antzerki lirikoan, beste ezer ez bezalakoa zen; denak bat egiten baitu bertan: txaloak, goraipamen neurrigabeak, libretista ezezagunen etengabeko jazarpena, emakumeen lausenguak -izan ere, antzerki lirikoetan bigarren tiple asko behar baitziren, eta denak zeuden korutik irteteko desiatzen !-. Garaipenaren lurrin gozoa pilo handitan arnasten zuen gure maisuak, faltsukeriei erreparatu gabe; hitz politak azkar irensten zituen, bigarren intentziorik inon ikusi gabe.(42:43)

OFF:

(42:53) Madrilen etengabe jasotzen ditu gonbitak, eta lausenguak. Maria Lejarragak bere osasun ahula zaintzeko gomendatu arren, Usandizaga antzokira etortzen da gauero.(42:05)

Maria Lejarraga:

(43:07) Adinez gizona zen; arrakasta itzela kontuan hartuta, garaiko heroia; eta izaeraz, haur gogaiti eta egoskorra. Ume zen aldetik, erregutu egiten zuen, eta gailurrean zegoen gizontzat, nagusitu..."Lehen atala amaitu orduko itzuliko naiz" esan, eta maiteminduta dagoenaren egonezinaz abiatzen zen".(43:23)

OFF:

(43:54) Antzezpeneen ostean, ospakizunak datoz. Bat azpimarratzekotan, Palace Hotelean Otsailaren 14an, Enarak antzerkiaren sortzaileei eskainitakoa. Bertan dira Benavente, Bergamin, Tomas Breton, Felipe Trigo, Alvarez Quintero Anaiak, Amadeo Vives...eta baita euskal erakundeetako ordezkari anitz, eta Donostiako makina bat adiskide ere.(44:18)

(44:27) Usandizagak egitasmo asko ditu esku artean; premiazkoena, Martinez Sierratarren libreto batekin opera bat konposatzea. Bitartean, Enarak antzezlanara Zarzuela Antzokian ematen hasi dira, eta beste zenbait hiriburutan ere estrinatuko da, besteak beste Bartzelona, Zaragoza, Valladolid, Iruñea, Bilbo eta Donostian, denetan, Madrileko arrakasta errepikaturik.(44:50)

(45:34) Mundu guztia Usandizagaren hurrengo lanaren zain dago; Sugarra izenburua izango du, eta testua berriro ere Martinez Sierratarrena da. Musikagilea, osasunez nahiko eskas, Nafarroako Igantzira joan da musika-lana aurrera ateratzera. Usandizaga herrira heldu denean herriko jaiak dira, eta musika eta su-ziriek egin diote harrera.(45:56)

(46:01) Usandizagak 28 urte ditu. Igantzin oso bizimodu bakartia egiten du. Goizeko 7retan jaikitzen zen. Ohean gosalduta eta hiruzpalau orduz bertan idazten zuen. Bazkaltzeko ordua bitartean mendian paseotxo bat eman, eta berriz lanari ekiten zion, apaiza eta botikaria etorri eta karta jokuan hasi aurretik. Arratsaldeko zazpietan afalduta eta oheratu egiten zen.(46:25)

Jose Antonio Usandizaga:

(46:27) Gaixorik zegoen gizonaren bizimodua egiten zuen Jose Maria Usandizagak. Tuberkulosia gailentzen ari zitzaion. Gaixotasunak osasuna jan egiten zion, eta horrexegatik oso bizimodu patxadatsua egiten zuen: berandu jaiki eta oso goiz oheratu.../ Jo eta su idazteari ekin zion. Igantzin egon zen bitartean gure aita, Ramon, berarekin egon zen, eta beti gogoan izan du zuzenean idazten omen zuela, ia apenas pianoa erabili gabe. Inoiz, akorderen batentzat, notaren bat idazteko bai, baina bestela, zuzenean idazten omen zuen, azkenerako, ia ohetik ere jaiki gabe. Azken hilabeteetan ohean eserita idazten zituen pentagramak, repentizatzeke zuen gaitasun paregabeari esker. Alegia, ia-ia batere zirriborrorik egin gabe idatzi zituen pentagrama haiek guztiak, eta kontuan izan ia berrogeitahamapiku izan zirela. Itxura batean heriotza hurbil sumatzen zuen, izan ere, Igantzin egon zen bitartean atsedetik gabe sortzeari ekin baitzion.(47:26)

OFF:

(47:49) Sormen-sukarrak jota balego bezalaxe idazten du Usandizagak. Maria Lejarragak hauxe zioen(47:54)

Maria Lejarraga:

(47:55) Liburuan denetarik nahi zuen: maitasun nahigabetua, gogoeta mingarriak, gaztaroko ilusioak, preso-ilara hunkigarriak, egonezina, itxaropena, harrokeria, samina, heriotza... Bere neurrigabeko sormen hura ordenatu

nahian-edo, Esquiloren trajediako sugarrak hartu nituen inspirazio-iturri gisa. Sugar haiek Asiako kostaldetik hasi eta Greziara bitarteko gailurretan pizten zituzten, Troya erori zela aldarrikatzeko. Hortik dator obraren izenburua bera ere.(48:26)

OFF:

(48:39) Usandizagak itsututa jardungo du lanean.(“Ez dut ez jan ez lotarako astirik” idatzi die Martinez Sierratarreri). Musikalanak aurrera egin ahala, osasuna ahulduz doakio. Antzerki-enpresari batzuk bisitan etorri zaizkionean, ia ez da ohetik jaikitzeke gauza ere izan. Elkarrekin bazkaldu, eta Sugarra musikalaneko atal batzuk ere jo dizkie. Bi bertsio egiteko asmoa du: bata zarzuela, eta opera bestea. Ilunabarrean, agurtzeko orduan, begiak dir-dir ditu sukarraren eraginez.(49:03)

Javier Bello Portu:

(49:16) Sugarra musikalanean, italiar antzerki garaikidearen ukituak antzematen dira, batzuen iritziz Pucinirenak...eta Pucini bera baino gehiago da !! Horra hor:”Hirugarren ekitaldian: Gauak maitasunaren atsegina agintzen zigun. Ay, nork piztu ote zuen sugarra, eta haizea ahaztu !!(49:42)

OFF:

(49:45) Usandizaga erabat itsututa dago hontzaren kantuarekin. Bere lgantziko lagunetako batek, Irisarri Jaunak, behin eta berriz gonbidatu du hegazti honen kantua entzuterara...bidea zaldiz egin behar, ordea, eta Usandizaga ez dago sasoiko.(50:02)

(50:09) Uda agortu, eta musikaria Donostiara itzuli da. Udazkena etortzearekin bat, medikuen kezka areagotu egin da. Usandizagak lan egiteari utzi dio. Tuberkulosiak ez du sendabiderik. Jaiotetxean bertan hilko da 1915eko urriaren 5ean, 28 urte dituela. Bizirik ikusteko asmoz abiatuta, Maria Lejarragak hauxe idatziko du (50:34)

Maria Lejarraga:

(50:35) 29 urte etzituela hil da, garaipen apurrak baino jaso gabe. Patuak arrakasta gaztetan ekarri zion, berarekin gertatuko zen bidegabekeriagatik aurrez barkamen eske balebil bezala. Hil da artista handia, ume-jeinua, bititza eta edertasunaren mireslea, maitasun itsu-itsuko bere artearen maitale handia.(50:56)

Javier Bello Portu:

(50:57) Usandizagarekin ikaragarrizko zorra daukagula gauza jakina da; horretan ez dago dudarik. Hala da eta kitto.(51:34)

Jose Antonio Usandizaga:

(51:15) Tamalgarria izan zen 28 urterekin hiltzea; horregatik esan ohi da onenak emateko zegoela. Nik ez dut uste, ordea, onenak emateko zegoenik. Bere ekoizpen musikalak badu mailarik, euskal eta espainiar musikaren historian leku garrantzitsua betetzeko.(51:34)

OFF:

(51:41) Donostian dolua ikaragarria da. Hiria gelditu egin da, dendak ere itxita daude. Hileta-prozesioak hiria zeharkatuko du, Mendi-Mendiyaneko musikak lagunduta. Casinoaren aurretik pasatzerakoan Kuartetoko Andantea joko dute; biolinetako bat Pablo Sorozabal bera da. Boulevarrean, Victoria Eugenia Antzokiaren parean, Enarak obraren Hirugarren ekitaldiko preludioa eskaini dute; eta Orfeoia berriz, Mendi-Mendiyan-eko Ave Maria kantatu du Santa Catalina zubiaren ondoan.(52:12)

(52:46) Usandizagak ia guztiz amaituta utzi zuen Sugarra, eta ahalik lasterren estrinatu nahi izan zuten. Gurasoek etzuten nahi ordea, artistaren azken oroitzapen hura argitara eman. Azkenean onartu eta bere anaia Ramon Usandizagak egin zituen konponketa musikalak.

(53:07) Estrinaldia Madrileko Victoria Eugenia antzokian egingo da 1918ko Urtarrilaren 30ean; kritiko ugari bilduko da bertan. Haietako batek, Tomas Borrasedek hauxe idatzi du La Tribunan:”Sugarra pasio bizi eta beroa da funtsean, heroi baten pasioa. Halakoxea baitzen bere espiritua, zelai eta itsasoari begira epeldutako ume-gorputz ahulean bilduta egon arren. 28 urteko jakintsua, parerik gabeko antzerkirako sena zuen artista, eta bere patuarekiko aurrikuspen beltza somatu zuena; zinez esan daiteke Sugarra-ren musika ez dela bere obra, bera berbera baizik.”(53:45)

Manuel Cabrera

(55:20) Bidasoa ibaia Euskalerraren ardatza izan da beti eta halaxe izango da etorkizunean ere. Ardatz horren eragina hurbil hurbiletik sentitu zuten, musikaren munduan euren lorratza utzi duten bi artistak. Alderdi honetan, ibaiertz honetan Ziburun jaiotako Maurice Ravel; eta bestealdean Jose Maria Usandizaga Donostiarra. Biek ere iturri artistiko bertsuak izan dituzte. Gustave Mahler eta Claude Debussy, eta biek jaso dute jaioterriaren onespina... Bidasoa ibaiak berak ere, bere bi ertzetako sentimenduak urteetan ikusi eta jasotzen jakin duen bezalaxe. Horrexegatik esan genezake gaur, Usandizaga eta Ravel, ibai honek zubi eginaz, elkartuta bizi direla.(56:10)